

Oñederra eta Torrealдай, euskaltzain oso

Fonologiariak eta 'Jakín' aldizkariaren zuzendariak datozen hiletan egingo dituzte sarrera hitzaldiak

AINARA GOROSTITZU

Atzodanik bi euskaltzain oso berri izango ditu euskararen akademiak, Joan Mari Torrealдай eta Lourdes Oñederra 29. eta 30. zenbaki-hutsarteak betetzeko aukeratu baitzituzten atzo Euskaltzaindiak egin zuen batzarrean. Torrealдай euskaltzain urgazle izatek euskaltzain oso izateko izendapena Jose Antonio Arana Martixa, Miren Azkarate eta Andres Urrutia euskaltzain osoek proposatu zuten. Aldiz, Lourdes Oñederraren proposamena Henrike Knorr, Xabier Kintana eta Pello Salaburu euskaltzainek egin zuten.

Literaturak elkartzen ditu euskaltzain oso berriak, baina akademian izango duten egitekoa oso desberdina izango da. Soziolinguistikaren eta komunikazioaren alorretik egingo du ekarpena Torrealдайk, nagusiki, eta filologiaren eta linguistikaren alorrean, batez ere, Oñederrak.

Joan Mari Torrealдай 1942an jaio zen Foruan, Bizkaian. Filosofia eta Teologiako ikasketak eta Hizkuntza frantseseko diplomaturara, Gizarte Zientzietan graduoko lizentziatura eta Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktoretza ditu eginak. Komunikazioaren alorrean *Anaitasuna* hamabostekarria zuzendu zuen eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko kide izan zen hasieratik. 1977tik gaur arte *Jakín* aldizkariaren zuzendaria da, eta aste honetan bertan euskal liburugintzak 1976tik 2005era izan duen bilakaera aztertzen duen *30 urte liburugintzan* liburua argitaratu du.

Lourdes Oñederrak ere aste honetan *Sommer jaunaren istorioa* liburua aurkeztu du, Patrick Suskinden lanaren itzulpena. *Eta emakumeak sugeak esan zion* nobelarekin Euskadi Literatura saria jaso zuen. Filologia Hispanikoan lizentziaduna da eta Euskal Filologian doktorea. Tesia euskal hizkuntzaren palatalizazioaz egin zuen, Koldo Mitxelenaen zuzendaritzapean. 1958an sortu zen Donostian eta 1996tik euskaltzain urgazlea da.



Lourdes Oñederra eta Joan Mari Torrealдай, euskaltzain oso izendatu berriak, atzo Bilbon. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

LOURDES OÑEDERRA Fonologiaria

«Fonologiaren aldetik egin dezaket ekarpena»

A. G.

«Susto bat ematen dizutenean bezala da, oraindik ez naiz pozik ere jarri», zioen atzo Lourdes Oñederrak euskaltzain oso izendatu ostean. Patxadarekin hartu nahi du kargu berria, azken urteetan akademiatik urrun egon ostean.

Sartzerazozoen une honetan nola ikusten duzu Euskaltzaindia?

Lau urtez euskara batzordean ibili nintzen, baina azken bolada honetan Euskaltzainditi oso urruti ibili naiz eta orain erakundea kanpotik ikusten dut, ia-ia beste edozeinek ikus dezakeen moduan. Orain barrutik ikusi behar dut, eta uste dut denbora izango dudala, baina orain nahiko izua badut, eta joango naiz lasai-lasai ikusten.

Akademiaren barruan ze alorretan ikusten duzu zeure burua?

Euskaltzaindian beti ahoskeraren alorrean egin dut lan urgazle gisa, eta zerbait jakitekotan alor horretan ibiltzen naiz.

Euskaltzaindiak gizarteratzeko egitas-

moa du, akademia gizarteratzeko beharrik ikusten duzu?

Ez dakit seguru. Beraiek jakingo dute nik baino hobeto. Ni hizkuntzaren zaintzatik oso gertu ibiltzen naiz, baina inguru horretan eta kanpotik ikusita, esango nuke jendearak arreta handia jartzen diola Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak gizartean presentzia handia du.

Ahoskera aldetik egin izan duzu lana Euskaltzaindian, baina idazlea era bazara etiluzpen bat ere egin duzu oraintxe. Alor horietan zer egiteko asmoa duzu?

Oraindik ez dakit nola antolatzen dituzten batzordeak, antolaketa barrutik lotu samarra da. Nik eskatzen badidate eta egin badeaket, dudarik gabe egingo dut lana literaturaren alorrean. Baina nik literaturaren lana ez dut alderdi profesionalek hartzen, ni idazten duen fonologiaria naiz. Maila teorikoan fonologiaren eta ahoskeraren alorrean gehiago eman dezaket, hori baita nire heziketa.

JOAN MARI TORREALDAI 'Jakín'-en zuzendaria

«Oso dinamikoa ikusten dut Euskaltzaindia»

A. G.

Lanerako asmo osoz sartuko da Joan Mari Torrealдай Euskaltzaindian, izendapena ez baitu sari moduan hartu. Baina bai poz handiarekin: «40 urtetik gora euskararen munduan ibili den batentzat euskararen etxe nagusia den honetan sartu ahal izatea ohore bat da».

Nola ikusten duzu Euskaltzaindia?

Oso dinamikoa ikusten dut Euskaltzaindia, oso momentu onean. Adierazi dizkidatenez, eta kanpotik ikusi ahal izan dudanez, proiektu berriz bete dago eta gizartean gehiago integratzeko eta dinamika batean sartzeko eta eraldatzeko momentu batean dago eta gu horretan laguntzen saiatuko gara.

Zer eramango duzu akademiara?

Nire ibilbidea aztertutik, euskararen soziolinguistikan, komunikazioaren munduan eta editorialgintzan egindako lana kontuan izanda, nire ekarpenak alderdi horretatik joango dira. Euskaltzaindiari buruz halako erakunde

filologiko edo linguistiko baten irudia izan badugu, nik ez dut irudi hori indartzen. Soziolinguistikaren alorretik, herri ekimenaren eta bestelakoen arteko sintesia, integrazioa eta elkarrengatza bultzatzea dezake uste dut.

Soziolinguistikari loturiko ildo hori indartu beharrean ikusten duzu Euskaltzaindia?

Euskaltzaindiak oso konektatua egon behar du euskararen errealitate sozialarekin eta euskalgintzarekin, eta alde horretatik, filologiko eta hizkuntzak bere baitatik dauzkan arazoak aparte, hizkuntzaren gizarteratzea eta hizkuntzaren erakunde nagusia den honen beraren gizarteratzea ere uste dut eduki interesgarriak direla, eta nire ekarpena, azken batean, hondartzaren baten harenaren ekarpena izango da. Nik eman dezake dena hortik emango dut, *Jakín*-eko eta *Egunkaria*-ko nire esperientziatik, eta liburuen azterketaren esperientziatik.

Durangoko Azokara txangoa

Egun pasa ederra Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara



Abenduak 6

Sabatuak 10 euro (Abenduak 8 euro)

Tolosa 10:00
Villabona 10:10
Andoain 10:20
Itzulerak: 19:00an Durangotik

RENFE
Oñederra
Txistoki

galtzaundi



Itzen orritara eta orritarabera: Galtzaundiho bulegoan, 943 455 004